

Hizkuntzaren balioa

Euskaldunon Egunkaria, 1995-11-19: 3.

Hizkuntza da gizakiaren bereizgarri nagusia. Zenbat balio duen? Gizona berak jartzen dio prezioa. Bada bizia eskaintzen dionik, eta bada, ez da falta!, bost axola zaionik. Bakoitza bereaz ari gara, noski, zeren eta ez denean, arrotza dena hiltzen ahalegintzen gara. Sarreratxo honek orain bi aste Gasteizen bildu ziren munduko Euskal Etxeetako ordezkarien Batzarre Nagusira narama. Gauza ederra! Ba harritu nintzen hauetako bati telebistako fokuen urduritasunean entzun nionean: "Euskara ez da euskaldunen bereizgarri nagusia"... Halere, berorren lekuan neronek honelako zehazgabetasunik esan izanak eman didan esperientziarekin pentsatu nuen: "Herorrek, beta izan ba huen, seguraski gaia beste modu honetara adieraziko huen: 'Inmigrazio zaharretan nabari den Euskararen falta nabarmenak ez gaitu, horregatio, euskaldun izatetik kanpo uzten, beste bereizgarri orokorrago batzu gorde ditugulako: Euskal Herriari zor zaion eskubide eta justiziaren sua, esate baterako; gure amerikartasunaz gain euskaldun familiaren zati izateko nahimen tinkoa ere bai". Eta lasaiago geratuko zen, seguraski.